

Orlando Valencia



Irudietan, Orlando Valencia ARCOE Ekuadorreko Kolonbiar Errefuxiatuen Elkarteko koordinatzailea, elkarteko egoitzan (Quito) eta bakearen aldeko manifestazio batean parte hartzen.

Kolonbiar errefuxiatuak Ekuadorreko linboan

Duela hiru urte, mafien mehatxuak eraginda Kolonbiatik Ekuadorrerako muga gainditu zuen Orlando Valenciak. Egun, ARCOE Ekuadorreko Kolonbiar Errefuxiatuen Elkarteko koordinatzailea da eta bi herrialdeen arteko zubi lana egiten du.

ROBERT SCARCIA

“**ANAIA GAZTE BAT NUEN**, eta familian ‘ibiltari’ esaten genion, zortearen bila joaten direnei bezala...”. Hitz horiek ez dira kolonbiar cumbia erritmo bateko bertsoak, Orlando Valencia Sernarenak baizik, anaia nola hil zuten azaltzerakoan. 2000. urtean izan zen. Kolonbiako poliziaren txalekoa soinean zeraman lagun talde batek gazte ibiltariaren autoa geldiarazi eta hil egin zuten. “Hainbat lagun izan ziren hilketaren lekuko, eta egun berean harrapatu zituzten hiltzaileak, baina gau hartan bertan denak aske utzi zituzten”. Zigorrik gabeko ohiko lotsagabekeria.

Orlando Valenciaren anaia bitxigilea zen eta harremana zuen Kolonbiako esmeralda meatzeetako jendearekin, “horregatik familiakook uste dugu *txertaketa* konturen batengatik hil zutela”. Kolonbian, gizartea mafien bidez kontrolatzen dutenek kobratzen duten diruari deitzen zaio txertaketa. Hilketak hori gertatu zenean hasi ziren Valencia familiaren kontrako mehatxuak. “Nire anaiaren odol bereko guz-

tiak hil nahi zituzten...”. Tolima departamentuan (Bogota mendebaldean), Valencia familia bizi zen herri berean, hiriko polizia-buruak berak proposatu zion familiari lekuz aldatzeko. Kafearen ardatzera ihes egin zuten orduan, herrialdearen erdialdera, Orlando Valencia hazi zen eskualdera. Bere esanetan, “heriotzari ihes egiten dion pertsonaren joera da hori; psikologikoki haurtzaroarekin lotzen gaituzten lekuetan babesteko tendentzia dugu”. Mehatxuak ez ziren eten, areago, gauzatu egin ziren eta Orlandoren beste anaia bat hil zuten. “Familiako gazteena zen eta ez zen inoiz inolako istiluetan nahasi”, ziurtatu du. Azkenik, 2005. urtean, 19 lagunek, “familia bereko lau belaunaldik” igaro zuten Ekuadorreko muga.

Orlando Valencia ARCOE, Ekuadorreko Kolonbiar Errefuxiatuen Elkartearen koordinatzailea da gaur egun. Erakunde horrek errefuxiatuen eskubideen alde egiten du lan eta 270 bat kolonbiar familia ordezkatzeko Quitoan. Bere historia iceberg handi baten

Orlando Valencia

muturra baino ez da, Kolonbiako gatazka dela-eta Ekuadorren bizi diren milaka kolonbiarren sufrimendua ezkututzen duen icebergarena. Baina Valenciaren odisea are garrantzitsuagoa da egun: Kolonbiaren eta Ekuadorren artean sortu berri den krisi diplomatikoak bereziki eragin dio.

Valenciak esan digu beti izan dela zaila Ekuadorren kolonbiarra izatea. Izan ere, este-reotipoak dira nagusi: “Gizon kolonbiarrak narkotrafikatzailetzat hartzen dituzte, bidela-purtzat (zintzotasun gutxiko pertsonatzat), eta emakumeak prostitutatzat”. Odola bera izoztu zion gertakari baten lekuko izan zen behin: eskola bateko zuzendariak “kolonbiar gerrillari txinatarra (gorria)” esan zion haur bati. Mutilkoak lau urte besterik ez zuen...

“Emakume bat ezagutu nuen”, gogoratu du ARCOEren koordinatzaileak. “Senarra Kolonbian hil eta handik gutxira iritsi zen Ekuadorrera, bi seme-alabarekin. Ez zuten errefuxiatutzat hartu, eta ondorioz ezin zuen lanik egin. Gainera, bazekien Ekuadorren lanean harrapatuz gero erbesterratu egingo zutela. Oso emakume polita zenez, eta herriko esamesen arabera emakumeak prostitutak direnez... gizon batek 20 dolar eskaini zizkion 20 minuturen truke. Eta azkenean prostituzioan sartu zen, seme-alabei jaten emateko”.

“Ez zen horren krudela izango –dio Valenciac– Ekuadorren eskumena duten agintariak kolonbiar emakumei lan egiteko eskubidea emango balie, eta prostituzioan aritzen direnak erbesterratuta. Hemen ordea, kontrakoa gertatzen da, eta emakumeak, etsita, prostituzioan sartzen dira, eta orduan... ‘kolonbiar putak’ esaten diete”.

180.000 babesgabe

Ohikoa izateaz gain, adibide horrek kolonbiar desplazatuaren sakoneko arazoa azaleratzen du: izan ere, errefuxiatutzat hartuko balituzte, Ekuadorren lan egiteko eskubidea izango lukete legez. Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuen Laguntzarako Agentziak (ACNUR)

Ez da aski arazo diplomatikoari heltzea. Kolonbiako gatazka krisi humanitarioa da eta aintzat hartu behar da biktimen iritzia ere

emandako datuen arabera, 180.000 lagunek baino gehiagok behar dute babes Ekuadorren, baina gaur egun arte 15.000 kolonbiar baino ez dituzte errefuxiatutzat hartu.

2006ko maiatzean, ‘impassea’ gainditzeko, Venezuelako enbaxada okupatu zuten Valenciac eta aitortu gabeko beste 42 errefuxiatuk. “Suitzako enbaxada hartu nahi genuen, baina hura bunkerra da, eta Venezuelakoa hartzea beste aukerarik ez geneukan”, onartu du ARCOEren koordinatzaileak. “Azkenean, ‘andatar txartela’ eskuratzea lortu genuen. Txartel horrek bizitzeko eskubidea ematen digu, baina ez lan egitekoa. Turisten parekoak gara ia-ia... Hemen geratuko gara”, dio, “migratzaileen linboan”.

Ez dirudi gerrillako buru baten heriotza eta greziar mitoak pareka daitezkeenik, baina Pandoraren kutxatik atera ziren izurriteen antzera, Kolonbiako armadak Raul Reyes Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileetako kantzilerra Ekuadorreko lurretan hil izanak ezusteko ondorioak izan ditu eskualdean. Besteak beste, azpimarratzekoa da azken gertakaria, ezustekoa eta positiboa: joan den martxoaren 7an, Ekuadorren eta Kolonbiaren arteko krisi diplomatikoa amaitu egin zen, Rioko taldeen bildutako Latinoamerikako herrialdeen agintariak esku hartu zutenean.

Aitzitik, Orlando Valenciac ez du esperantza galdu, eta uste du agintariak ulertuko dutela ez dela aski arazo diplomatikoari heltzea. Izan ere, Kolonbiako gatazka krisi humanitarioa da eta aintzat hartu behar da biktimen iritzia ere, ezinbestekoa baita Kolonbian bakea eta justizia ezartzeko. Pandoraren kutxaren hondoan ere, esperantza baino ez zen geratu azkenean. ■

Artezblai ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak
8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren zia boga
Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbo / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com